

“Poiesis” edo sorkuntza: sentimenduen sublimaziotik hitzen errealitatera

Pello OTXOTeko

Askotan entzun izan dut poesiaren iturburua sortzailearen ahalmenetatik kanpo dagoela edo inork deitu gabe ez dakit nondik eta nola datorrela. “Zertaz ari dira, bada, horrela mintzatzen direnean?”, esaten nion nik neure buruari. Jakina, *musaz* edo *musez* ari dira, edo jainkotiar izaerazko zer edo zer ikusezinaz, edo bestela halako *apeiron artistiko* moduko zerbait hitzez alpatu eta nolabait adierazi nahi dute. Dena den, zorionez edo zoritxarrez, neuri halako sentipenak, edo antzekoak, inoiz edo behin eragin didanez, hari buruz aritzeko ahalegin bat egitera ausartuko naiz.

Pentsamenduaren eta gogoetaren kitzikaduran parte hartzen duten elementuen jatorriaz aritzea batzuetan labainkorra bada ere, komenigarriak lireratekeen saiakerak ez dira maiz irakurtzen. Honako hau ondoren izan daitezkeen beste batzuentzako gonbita besterik ez da. Ziurtasunak ezartzeko orduan, tentuz ibili behar da, eta hain zuzen ere, gai honi dagokionez, ziurtasun gutxi daudela esango nuke. Alta, horrek ez luke oztopo izan behar gogoeta ttiki bati ekiteko. Halere, estetika kontuetan ziurtasun objektiboz hitz egitea zaila da, eta ondorioz, sikiera zutarri moduan, ziurtasun bakar baten azalpenaz ibilbidearen lerro nagusia finkatuko dut.

Argi dago gogoetaren oinarria fisikoa dela –gure garuna–, pentsamenduaren sorrera materialak ahalbidetzen du, alegia, neuronen arteko elkar loturak. Horretatik at ez dago besterik, ez dago momentuz eztabaidan gehiegi aritzerik honi dagokionez –eztabaida seriorik, jakina, sinesgarritasun minimorik eduki dezakeenik, behintzat–. Badarik ere, materia horretatik sortzen dena erabat harri-garria eta misteriotsua da, hau da, geure buruari buruz aritzea eta

pentsatzea. Eta tarteka, neurri gabeko berezitasun hori are argi distiratsua goz janzten da esperientzia miragarriak sortzeko: artea eta literatura. Bide batez, zilegi bekit horien artean nire ustez beste guztietatik gailentzen direnak aipatzea: musika eta poesia.

Baina gatozen geurera, sorkuntzaren sorrera pizten duen eragin edo kitzikadura hori zertan datzan eztabaidatzera, eta jorra dezagun hasieratik zabaldutako ildo nagusia.

Nondik dator poesiaren indar eta emari indartsu bezain misteriotsua? Nondik datorkio sortzaileari hitzak taxuz harilkatzeko bulkada hori?

Zaila gerta dakioke edonori nonbaitetik hasi beharra, batez ere tankera honetako galderei dagokionez; izan ere, poeta batetik bestera, baita poeta berak ere, bulkada-sortzaile mota ezberdinak suma baititzake. Adibide bat jartzearren, René Char-ek zioena. Berarentzat, poemaren sorrera inposaketa subjektibo bat eta aukeraketa objektibo bat direla-medio azaleratzen da. Agian hitz korapilatsuak irudituko zaizkigu. Eta Char-ek jarraitzen du: *Poema bera asanblada bat da, harreman garaikideetan erabakigarriak diren balore originaletako mugimenduan dagoen asanblada, eta baldintza hauetan, norbait lehena bihurtzen da. Suposatzen da lehena bihurtzen den hori, sortzen den poema izan daitekeela (poeta bera bailitzan ere uler daiteke). Ez dut uste esaldi honek gehiegi argitu digunik hasierako ideia. Hala ere, hitz ederrak dudarik gabe; baina kasu honetan, nondik ateratzen da asanblada horretan entzungo den lehen hitza? Nondik, eta nola?*

Nire ustez, poesia benetako gizatasun propioetik sortzen den espresio berezkoa izan daiteke. Alabaina, non dago, bada, gizatasun horren funtsa? Non dago izaki berezi hori egiten gaituen, edo ebuluzioaren ondorioz bihurtzen ari garen horren funtsa? Horretan egon daiteke poesia, edo hobe esanda, hortxe dago izaki egiten gaituen horren funtsa eta oinarria. Eta zer ote misterio horretara hurbiltzen edo bideratzen gaituena? Sentipenak eta pertzepzioak dira. Ederki aipatzen zuen Heidegger-ek hainbat liburuetan *gizakia galdetzen duen izakia dela*, modu honetan giza izaeraren baldintza garrantzitsuenetako bat finkatu nahian. Horretaz gain, kualitate intelektual jasoagoetara eramaten gaituena galdera horiek egitea da, hau da, galdera arrunt edo konplexuen antolaketa estetiko-formala. Horretan egonen litzateke gakoa, izan ere, poesia gogoetaren espresio estetiko-formala baita. Beraz, poesia *galdetze* horren puntu garaienean

kokatuta legoke. Baina horrek, besterik gabe, *filosofia zer den* galderari ere erantzuteko balio dezake. Eta hori baino lehen, hizkuntza bera baino lehenago, beste zer edo zer badago. Ondorioz, sentipenak dira poesiaren lehenugar sugar hori pizten dutenak. Heidegger-ek berak honela dio:

"Poesiak ez du hizkuntza hartzen aurretik baden lehengai gisa, baizik eta poesia bera da hizkuntza ahalbidetzen duena. Beraz, elkarrekikotasunez, hizkuntzaren zerizana poesia beraren zerizanetik ulertu behar da."

Ados nago erabat hitz hauekin, baina ez da zehazten zer ote den *poesia* deituriko hori. Bulkada-sortzaile hori, kasu honetan, sentipen eta pertzepzioen emari bideratua litzateke. Poesia hizkuntzaren aurretik sortzen da, Heidegger-en ustez; eta zer ote da hori sentipen hutsa ez baldin bada? Zer ote, ez bada pertzepzio hutsa? Jakina, sentipen edota pertzepzio honi ondoren forma ematen diogu sentimendu adierazkor bat bihurtzeko, eta hitzaren bidez transmititzen dugu elkarren arteko harremana gerta ahal izateko. Harreman honek, bereziki, izaera estetikoa izango du definizioz. Laburbilduz, aurrena sentipena da, berehala sentimendu bat sortzen duena (ingurunearen arabera, norberaren egoeraren menpe, eta norberak dituen bizipen guztiekin erlazionatzen dena). Ondoren, horren guztiaren prozesaketa dator, razionaltasunak bildu, bateratu eta forma emango diona ideien eta hizkuntzaren bitartez. Honetan bat nator Hume zaharrarekin *Giza izaerari buruzko tratatuaren* lehen liburuko bigarren orrialdean honako hau esaten digunean:

"... gure ideia bakun guztiak, bere lehen agerpenean, beste ideia bakun batzuetatik ondorioztatuak dira; eta azken ideia hauek, aurreko beste ideiekin guztiz bat datoza, eta zehatz-mehatz hasierako ideiak adierazi eta ondorioztatu nahi dutena azaltzen dute."

Emozioa uneari txertatzen zaio, eta une horretan gogoeta sortuko da, eta pentsamendu jakin horri une horretako emozioa atxikita azalduko zaio, pentsamendu hori birgogoratzen dugun bakoitzean. Horregatik, emozioa ongi atxikia eta barneratua dagoenean, gogoeta zehatzarekin emozioa atxikia azaleratuko da birgogorapenarekin batera, eta baita alderantziz ere; emozio zehatzarekin, pentsamendu haren berreskurapena, alegia. Eta unez uneko sentazio hauekin guztiekin geure bizipenak eta geure esperientzia eraikitzen dugu, gogoe-

ta sortu, pentsamendua harilkatu, eta nortasuna gauzatzea lortuko dugu. Eta batzuetan, zorte on pixka batekin, izateari forma emango diogu, unibertsoan geure lekua aurkituko, eta errealitate honetan geure burua ezagutuko.

Bide batez esan dezadan Antonio Damasio neurozientzialaria-
ren tesiak Humek irekitako ideia hauen ildo beretik doazela, eta ondorioz, Descartes-en *cogito ergo sum* famatua arbulatzen dute, hain zuzen ere, sentipenak pentsamenduen aurretik sortzen direla esanez. Baita juizio moralen aurretik ere, jakina.

Azken finean, baden guztia, mundua, eta errealitatea ere, ge-
zurra izan daitezke, geure pertzepzioak eta sentipenak izan ezik. Horiek ez! Horiek benetakoak dira, inguratzen gaituen beste guztia faltsua bada ere. *Pentsatzen dut, beraz, banaiz* –zion Descartes-ek-. Baina hau, egia baino ez daiteke izan, pentsatzen dudala sentitzen badut. Eta poesia zerbait bada, hori sentimendua da, eta ondoren gogoeta. Beraz, poema bat, poema dela esateko, nire ustez, aurrena sentipenak igorri behar ditu; gero estetika berezi bat adierazi, edo marko estetiko konkretu batean eraikia izan behar du; eta azken pauso bezala, ez nahitaezkoa baina bai garrantzitsua, hausnarketa edota etika konkretua eduki behar du bere baitan, bere edukietan.

Yeats-ek esan zuen "*gizaki baten bizitza hegaldia da... bere borroka itsua izarretako sareetan zehar*". Horixe bera izan daiteke pentsatzearen oinarria, sentimenduetatik abiatu, eta berauen sublimazioetik, izarren eta gogoetaren misterioa den horretan murgiltzeko ahalegin mugaezina. Gizakiaren bidaia horretan arrazoia izan dezakegu gidari, eta lurralde ezezagunetara eramango gaituen espaziontzia zuzenduko du. Arrazoia da gidaria, iparrorratza eta lema, nahiz eta esploratzera abiatuko garen errealitate zabala sentimenduetatik eratorria den.

• Poesiari buruzko hausnarketan murgilduta jarraituz, eta urruti-
ko iturrietara joan gabe, geurean geratuta, Juan Kruz Igerabideren hitz batzuk gogora ekarriko ditut: "*Poesia, zerbait izatekotan, hitza baita; alabaina hitzaren bestaldean ez ote dago isiltasuna? Isiluneak hitzak bezainbateko karga adierazkorra hartu ohi du. Poesia, behar-bada, hitza baino harantzago doa; behar-bada, errealitate-irrealitate arlo desberdinen oihartzunak uztartzen aritzen da, zein mintzoan, zein isilean.*"

Isiltasuna azaldu zaigu poesiaren oinarrizko beste elementu gisa. Noiz edo noiz, sentipenak jasoko dituen arrago delikatu. Benetan garrantzitsua da, eta halaber hitz hauekin guztiz bat nator. Horretaz gain, neurri batean behintzat, arestian esandako gehiengoa baieztatzen eta egiaztatzen du.

Puntu honetara iritsita, aurrez aurreko dialektika batean kokatuko ginateke: arrazoi poetikoa *versus* arrazoi logikoa. Biak ala biak estuki lotuak, eta era berean, buruz buru bata besteari aurre egiten. Logikoa dena razionala da, jakina. Poetikoa dena, ez beti. Baina pentsatzea sentipenen kateatze batetik sortutako ariketa bada, hots, razionala dena sentipenen premisetatik eratorria bada, gogoeta ororen azpian datzana sentipen-emozio bat da, eta honek pentsaezina egiten du pulstio emozionalik gabeko arrazoimena izatea. Haatik, argi dago ezin daitekeela hitzezko adierazpenik lortu lehenago razionalizatu gabeko sentipen huts eta puru batetik hasita.

Modu honetan, laburbil dezakegu funtzio bien (poetikoa eta logikoa) premia dugula hizkuntza emotiboa eta razionala eraikitzeko, ardura gehiegirik izan gabe zein den jatorrizko indarra (sentipena) eta zein itxura ematen diona (arrazoi).

Poesiak bere bulkada-sortzailearen eragilea sentipenetan dauka. Hala ere, poesiak itxura hartu eta bere egitura gauzatzen duenean hausnarketarekin batera lortzen du bere zerizana eta funtsa, marko estetiko-formal konkretuarekin batera; eta gogoetarekin batera bere zerizana lortzera iristen ez bada, orduan artearekin batera izango da, edo biekin batera. Bidenabar zehaztu dezadan, arestian alpururiko marko estetiko-formala poesiaz ulertzen dugun horretaz ari garenean erabiltzen dudala. Marko hau intersubjektibitate adostu baten ondorioz arau konkretuen bidez hizkuntza antolatzeke modu berezia da. Beraz, poesia, poesia bada, artearekin edota gogoetarekin batera estuki lotua azalduko da, marko estetiko-formal horren eremuetan. Definizio honetatik kanpo, ez dago poesiarik, agian beste zerbait egongo da edo izango da, baina ez poesia. Hertsiki hain zalantzagabekoa eta baztertzalea azaltzea ez da, gehienetan, kome-nigarria izaten. Tarteka, aldiz, beharrezkoa da, nora ezean gabiltzanean bereziki. Izan ere, egun poeta askoren joeran eta kritikagintzan nagusi baita poesia eta gogoeta banatzen dituen jarrera, era honetan poesiaren zentzua diluituz. Alegia, despoesia edo ezpoesia. Baina

nago ez direla horretaz ohartu, eta ohartzen ez diren bitartean poesia bera eta irakurlea izango dira kaltetuak.

Hainbeste lerrotan luze aritu izan naiz poesiaren jatorriari buruzko oldoztetan. Iruditzen zait begirada proiektzio puntu ezberdinetara zuzendu dudala, modu honetan erantzun bat baino gehiago aurkitzeko asmoz. Ondoren datozen edo etorriko diren hausnarketa berriek, orain arte eginiko bidea lantzeaz gain, zabaldu eta hobetu ere egingo dutela espero dezagun.

Etorkizunean hau beteko dela ziur egonik, ez zaigu dena hor bukatzen. Poesiaren erantzulea eta eramailea, eta era berean igorlea eta hedatzailea azalduko zaigu: poeta. Eta zer da poeta izatea? Nork daki zer den poeta izatea? Zenbat buru, hainbat aburu. Honi erantzuteko, esango nuke are erantzun gehiago eta anitzagoak topa ditzakegula. Dena den, norberak erantzun posible bat baino gehiago izan dezake une eta egoeren arabera. Galdera hau zehaztugabeagoa da, subjektiboetan subjektiboenetakoa. Alabaina, hurbilketa interesgarri gisa, utzidazue berriz ere René Char-en hitz batzuk orriotara ekartzen: "*Poeta izatea, ezinegon baten jabe izateko gogoan oinarritzen da; eta ezinegon honek, berau betetzean, badiren eta izan daitezkeen gauza guztien zurrumbiloen artean, bukaeran zoriontasuna sorrarazten du*".

Aurreko hitzak ederrak badira ere, ez zait iruditzen osoki kontuan hartu beharko genituzkeenik, izan ere, nahiko masokista baita bere oinarritzko planteamenduetan. Askotan lotu izan da poeta-izaera aiurri triste edota malenkoniatsu baten jabe den gizakiaren itxurarekin. Kasu askotan ez dabil urrun hurbilketa hau, baina ez da horrela beti izaten. Badarik ere, kontrakoa gertatzea ez da arraroa izaten. Batzuetan poeta, pertsona alaia, irribarretsua eta *bon vivant* izan daiteke. Norberaren izaera garrantzia edo eragina izan dezake idazteko orduan, baina ez da erabakigarria izaten. Edonola izanik, egile guztiok bere lanaren amaieran, edozein motatakoa izanda, sekulako zorion eta atsegina lortzen dugu geure barne-izatean eta geure barne-egonean.

Ez dakit *inspirazioa* deritzona azaltzen (euskaraz hitz politagoa dugu: *goi-argia*), edo poesiaren sorrera-iturria bilatzen trakets ala fin aritu naizen. Dena den, misterioa da, eta misterio izaten jarraituko du. Poesia funtsean zer den benetan misterio sakona baita, ia misterio argiezina, iristezina, atxikiezina esango nuke nik. Hizkuntza bera-

ren sorrerarekin batera edo arestian esan bezala hizkuntzaren aurretik guregan daukagun misterio horri eutsi egiten diogu. Eta zergatik eta zertarako idazten dugu? Oraindik ez dut horren erantzunik topatu; hala ere, Xabier Letek, berriki eginiko gogoetan honela dio:

"Hitzek ezin dezakete bizitza erredimitu, eta are gutxiago heriotza. Hala ere, heriotzarekin lehian pentsatzen dugu, idazten dugu, gure hondarrak, gure aztarrenak salbatu nahirik; baina heriotzaren esperientziak hesten ditu bizitzaren eta poesiaren ibilbideak."

Neurri batean, Leterentzat, idaztea heriotzaren sentimendua garaitzeko edo, hobe esanda, gainditzeko modu bat da, izan ere, garaitu, azken unean heriotzak beti garaitzen baitu. Baina ibilbide horren bukaera zein den jakitun izanik, niretzat ez du zentzu handirik horrela pentsatzeak. Eta gure arrazoiak, gure *logos*-ak, benetan hau barneratzen badu, ezin dezake sinetsi erredimitzeko edo heriotza gainditzeko idazten dugula. Ostera, niri gehiago gustatzen zait, eta gehiago identifikatzen naiz Cesare Pavessek idatzi zituen hitz hauekin:

"Funtsean, zergatik izan nahi dugu ezagunak, jenioak, kreatzailak? Etorkizunean gogoratuak izateko? Ez. Jendetzaren artean goazenean behatzarekin seinalatuak izateko? Ez. Egiten duguna egiazki merezi duela bermatzeko eta sentimendu horren gainean egunerokotasunaren nekea sostengatzeko, sortze lana berezkoa eta paregabea delako. Gaurkoagatik, ez eternitateagatik."

Pavesse-ren ikuspegi hau, nire ustez, lagungarriagoa da idazten jarraitzeko, euskarri eta arnas delako, ezinegon existentzialari fermuki aurre egiten diolako, eta baltsamo gisa ere funtziona dezake.

Nolanahi, eta zorionez, ate guztiak eta erantzun guztiak irekiak diraute, sentimenerako, jakituriarako, poesiarako, gizatasunerako.